

Hiru erakundeek bere gain hartu dituzte **Mureloil-ekin sinatu duten** sindikatutako finantzaketa-eragiketaren **19 milioi** euroak

Murueta ontziolan propulstio hibridoko ontzi baten eraikuntza finantzatuko dute Kutxabankek, ABANCAk eta Rural Kutxak

- Muruetak propulstio elektriko diesela eta hibridoa konbinatuko ditu 'Murueta C-325' itsasontzian; horri esker, isuriak % 30 murriztuko dira nabigazioan eta hutsaren hurrengoak izango dira portuan
- Egoitza Bilbon duen Mureloil ontzi-enpresa 'Bunkering' jardueretan espezializatuta dago Espainian eta Portugalen

2021eko maiatzaren 10a. Mureloil ontzi-enpresak finantza-erakundeen 'pool' baten finantzaketa jasagarria lortu du ontzi hibrido bat eraikitzeko; ontzi hori petrolio-produktuak garraiatzeko edo 'bunkering' ontzi gisa erabili ahal izango da, eta eraikuntza-fasean dago Murueta ontziolan.

Kutxabankek, ABANCAk eta Rural Kutxak guztira 19 milioi euro ematea adostu dute, sindikatutako finantzaketa-eragiketa batean, non % 42,1, % 31,6 eta % 26,3 hartuko duten beren gain, hurrenez hurren, eta ABANCA banku eragile eta Tax Lease eta 874ED egituratzaile gisa dela.

Murueta ontziola egiten ari den ontzi berritzailearen ezaugarri nagusia da **propulstio elektriko diesel eta hibridoa** konbinatuko dituela; horri esker, isuriak hutsaren hurrengoak izango dira portuan, eta berotegi-efektuko gasak % 30 baino gehiago murriztuko dira nabigazioan.

'Murueta C-325' ontzia, **2022ko uztaileko** bukatu beharrekoa, 'bunkering' lanetan erabiliko den lehen ontzia izango da horrelako propulstio konbinatuarekin, bateriak erabiliz energia metatzeko sistema berritzaile bati esker.

Ontziak 7.500 metro kubikoko edukiera izango du guztira, epoxy-z estalitako 12+2 andeletan banatuta, eta aldi berean lau segregazio edo banantzetan biltegitratzeko ahalmena izango du. Unitatea prestatu egongo da gas geldoa erabiltzeko, eta gehienez ere orduko 1.100 metro kubikoko deskarga-tasa izango du.

Egoitza Bilbon duen Mureloil ontzi-enpresak erregaia eta petrolio-produktuen isuriak jasotzeko zerbitzuak garraiatzen ditu; horretarako lau ontzi ditu 17.500 tonako karga-ahalmenarekin, eta 25.000 tonara iritsiko da, orain eraikitzen ari den ontziarekin.